

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 177/2019 Foru Dekretua, apirilaren 16koa. Onestea 2019rako mahasti aseguruak kontratatzeako laguntzetarako deialdia eta kreditu erreserba

Uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretuaren bidez (azaroaren 15eko 69/2011 Foru Dekretuaren bidez aldatua) eta ekainaren 17ko 32/2014 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren nekazaritzako aseguruak kontratatzeako laguntzak emateko oinarriak, eta erabaki zen diruz laguntzea, besteak beste, mahastien aseguruari (ardogintzako mahatsaren ustiapenaren aseguru, eta ardogintzako mahatsaren aseguru konbinatua eta ezohiko kalteen aseguru) dagokien aseguru lerroa.

Laguntza horiek izapidetzeko prozeduraren barruan, aipatutako dekretuaren 8. artikulua xedatzen du urtero deialdi bat onetsiko dela. Deialdian, laguntza lerro bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea adieraziko da, eta laguntzak emateko erabiliko diren kredituak zehaztuko dira.

Mahastien aseguruetarako laguntzen 2019rako deialdia onetsi behar da, eta horri aurre egiteko behar besteko kreditua gorde.

Aginduzko txostenak aztertu dira. Horregatik, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Mahastien aseguruak kontratatzeako laguntzen 2019ko deialdia onestea. Hona hemen xehetasunak:

– Diruz lagun daitezkeen aseguru motak: 2019an indarrean dagoen Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Plan Nazionalean, zeina Arabako Lurralde Historikoan dauden lurzatietan ardogintzako mahatsari aplikatzekoa baitaio, jasotako aseguru lerroen barruan daudenak.

– Eskaerak aurkezteko epea: 2019ko maiatzaren 2tik ekainaren 28ra, biak barne.

– Kreditu erreserba: 175.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko gastu aurrekontuko 40.1.04.42.02.479.00.02 "Mahasti aseguruaren kontratazioa sustatzea" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 19.5.19.105.1643/000).

Bigarrena. Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE